

DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA ALOR PRIBATUKO ZERBITZUEN ETA POSTA ELEKTRONIKO KORPORATIBOAREN ERABILERA BALDINTZAK

1. ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA.

Jakinarazten dizugu ondorengo taulan jasotako erakundea arduratzen dela zure datu pertsonalen tratamenduaz lege eta erregelamendu hauetan ezarritakoaren arabera: Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuei buruzko 34/2002 Legea; 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (aurrerantzean DBEO), eta 3/2018 Lege Organikoa, 2018ko abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko (aurrerantzean DBLO-EDB).

Sozietate-izena: Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua (aurrerantzean "ICAGI")

IFK: Q2063001H

Helbidea: Mandasko dukearen pasealekua 11, behea – 20012 Donostia

Telefonoa: 943 44 01 18

Harremanetarako posta elektronikoa: secretaria@icagi.net

ICAGIk erabateko konpromisoa du indarrean dagoen datuen babeserako araudia betetzearekin eta eskura dituen neurri tekniko eta antolaketa neurri guztiak aplikatuko ditu elkargoko zerbitzuak ematerakoan, kudeatutako informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko, baita datu pertsonalen erabilera gardena eta bildutako xedeetara doitu egiteko ere.

Datuen Babeserako Araudi Orokorreko 13. artikuluari eta DBLO-EDBko 11. artikuluari jarraikiz, zure datu pertsonalen tratamendurekin zerikusia duten oinarritzko alderdien eta eskubideen berri ematen dizugu hemen:

ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA	
Zure datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna	ICAGI
Xede hauekin erabiliko dira zure datuak	Elkargoko zerbitzuak eskaintzeko eta kudeatzeko. Abokatzaren lanbide-jarduerarekin lotutako informazioa bidaltzeko, bide elektronikoetatik.
Tratamendurako legitimazioa	Kontratu betetzeak, zure adostasunak eta interes legítimoak datu pertsonalen tratamendua legitimatzen dute (DBEOko 6. 1 artikuluko a), b) eta f) atalak).
Datuak lagatzea	Legea edo ICAGIko estatutuak betez, zure datu pertsonalak komunikatu ahal izango zaizkie honako hauei, elkargoko zerbitzuak emateko beharrezkoa denean: Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiari, profesionalen beste elkargo batzuei, Administrazio Publikoari eta organo judizial eskudunei.
Zure eskubideak	Eskubide hauek dituzu: datuetara irispidea izateko eskubidea, datuak zuzentzeko eskubidea, datuak ezereztzeko eskubidea, datuen tratamendua mugatzeko eskubidea, datuen eramangarritasunaren gaineko eskubidea eta datuen tratamenduari aurka egiteko eskubidea. Egin eskaera aurrez adierazitako helbidean. Emandako adostasun oro edozein unetan eta doan baliogabetu dezakezu.
Erreklamazioak	Datuen Babeserako Espainiako Agentzia da informazio-eskaerei erantzuteko eta erreklamazioak aurkezteko eskura duzun kontrol-agintaritza: www.agpd.es .
Datu-kontsebazioa	Zure datu pertsonalak legez derrigorrezkoak diren epealdian soilik gordeko dira. Datu fiskalak bost urte inguru gorde behar dira.

2. ZURE DATU PERTSONALEN TRATAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIO ZABALDUA.

2.1. Bildutako datuak.

ICAGIk eskatutako datu pertsonal guztiak beharrezkoak eta ezinbestekoak dira elkargoari eskatutako zerbitzuak emateko. Derrigorrezkotzat jotako datuak emateari uko egiteak zerbitzua edo eskatutako informazioa ez ematea ekarriko du. Era berean, datuak eman ahal izango dira norberaren borondatez zerbitzuen edo emandako informazioaren kalitatea hobetzeko xedearekin.

2.2. Tratamenduaren xedea.

- Zurekin harremanetan jarri ahal izatea.
- Igaritako kontsultak, oharrak, gorabeherak edo iradokizunak behar bezala erantzutea, izapidetzea eta kudeatzea.
- Elkargoko zerbitzuen administrazio oinarritzko eginkizunak kudeatzea.
- Abokatzaren jarduerarekin lotutako informazio ororen berri ematea, bitarteko elektronikoen edo gailu mugikorren bidez.
- Alor pribatuko bisiten analisi estatistikoak.
- Prestakuntza-ikastaroetan zure partaidetza kudeatzea.

2.3. Datu pertsonalen tratamendurako legitimazioa.

DBLO-EDBko 6.2 artikuluari jarraikiz, ICAGIko webgunearen eremu pribatuan izena ematean pribatutasun eta erabilera-baldintzen politika honetan ezarritako xede guztiak berariaz onartzen dituzula ulertzen da.

Elkargokideei lan arloarekin zerikusia duten gaietan eguneratuta egotea ahalbidetuko dien komunikazio-bidea mantentzeko ICAGIk duen interes legítimoan oinarritzen da informazioa bidaltzeko harremanetarako datuen tratamendua (DBEOko 6. 1 artikuluko a), b) eta f) atalak).

2.4. Zure eskubideak.

Zure datu pertsonalekin lotuta eskubide hauek dituzu:

1. Datuetara irispidea izatea.
2. Datuak zuzentzeko edo ezereztzeko eskatzea.
3. Datuen tratamendua mugatzeko eskatzea.
4. Datuen tratamenduari aurka egitea.
5. Datuen eramangarritasuna eskatzea egituratutako, ohiko erabilera eta irakurketa mekanikoko formatuan.

6. Zure datu pertsonalen tratamendu automatizatua soilik oinarritutako erabakiaren xede ez izatea.
7. Tratamendua mugatzea.

Eskubide horiek baliatu ahal izango dituzu ICAGlren aurrean. Horretarako idatziz zuzendu ahal izango zara aurrez adierazitako helbidera, eskaerarekin batera nortasun-agiri ofizialaren kopia erantsita, edo posta elektronikoa bidali ahal izango duzu sinadura elektronikoa jasota, nortasuna egiaztatzeko xedearekin, helbide honetara: secretaria@icagi.net.

Zure eskubideari behar bezala erantzuteko beharrezkoa den informazio osagarri guztia eman beharko duzu. Gogorazten dizugu ez direla onartuko datuen babeserako araudian aurrez ikusitako baldintzetan emandako, zehaztu gabeko edo errepikatutako eskaerak; hala ere, ICAGlren erantzuna jasoko duzu nolana ere.

2.5. Zure adostasuna baztertze eskubidea.

Interesdunak bere adostasuna edozein unetan baztertze eskubidea izango du. Adostasuna baztertzeak ez du atzeraeraginezko efekturik izango eta, beraz, ez dio eragingo baztertu aurreko adostasunean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunari.

2.6. Kontrol-agintaritzaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea.

Une oro aurkeztu ahal izango duzu erreklamazio bat Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean: Jorge Juan kalea, 6. 28001 Madril. www.aepd.es.

2.7. Alor pribatua edo posta elektronikoa baja ematea.

ICAGlko alor pribatua eta hari atxikitako zerbitzuetan baja emateko eskatu nahi baduzu, eskaera bidali beharko duzu postaz goian adierazitako helbidera, eskaerarekin batera NANaren kopia erantsita, edo posta elektronikoa bidez egin dezakezu ziurtagiri digitalarekin sinatuta, zure identitatea egiaztatzeko xedearekin, helbide honetan: secretaria@icagi.net.

2.8. Datuak hirugarrenengoi komunikatzea.

Aplikagarria den araudia edo estatutuak betetzeko beharrezkoa denean, ICAGl zure datuak komunikatu ahal izango dizkie honako hauei: Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusia, organo judizialak, administrazio publikoak, kontseilu autonomikoak eta profesionalen beste elkargo batzuk.

Zerbitzuren bat erabiltzeak beste hartzaile bati lagatzea ekartzen badu, zerbitzuaren pribatasun-politika espezifikoan jakinaraziko da.

2.9. Nazioarteko transferentziak.

ICAGl ez du izaera pertsonaleko datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

2.10. Datu-kontserbazioa.

Datuak eman edo jasotzeko xedearen arabera ezinbesteko denboran kontserbatuko dira, kasuan kasu, ezabatzeko eskubideari kalterik egin gabe. Harremanetarako datuak mugarik gabe kontserbatuko dira elkargokideei ICAGlko jarduerarekin edo lanbidearen jardunarekin lotutako informazioa bidaltzeko, aurka egiteko edo baliogabetzeko eskubideari kalterik egin gabe.

2.11. Neurri teknikoak eta antolaketa neurriak.

ICAGl indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera hartu ditu neurri teknikoak eta antolaketa neurriak, kontuan hartuta teknologiaren egoera eta hartutako neurriak interesdunen eskubide eta askatasunen arriskuekiko proportzionalak izanik. Neurri horiek saihestu egin nahi dute emandako datuak galtzea, gaizki erabiltzea, aldatzea eta baimenik gabe haietara iristea.

Aurrez adierazitako moduan, aplikatutako segurtasun-neurriak arriskuarekiko eta teknologiaren egoerarekiko proportzionalak dira, baina, hala eta guztiz ere, erabiltzaileak jakitun izan behar du neurri horiek ez direla eraso ezinak. Pertsonen eskubideei eragin diezaiokeen segurtasun-eten oro 72 orduko epean jakinaraziko zaio Datuen Babeserako Espainiako Agentziari eta, kasuan kasu, eragindako erabiltzaileei.

3. ALOR PRIBATUAREN ETA POSTA ELEKTRONIKO KORPORATIBOAREN ERABILERA-BALDINTZAK.

3.1. Edukiengatiko erantzukizunetik salbuestea.

3.1.1. Akatsak edo zehazgabetasunak argitaratutako informazioan.

Alor pribaturako eta posta elektronikoa korporatiborako sarbidea eta/edo erabilera borondatezkoa eta hautazkoa da ICAGlko elkargokideentzat.

Alor pribatuak Espainiako abokatutza instituzionalaren informazioa eskaintzen du, Abokatuen Elkargo Prestuek eta Abokatuen Kontseilu Autonomikoen antolatutako programen eta jardueren berri ematen du eta informazio juridiko baliagarria eskaintzen du herritarrentzat eta gizartearentzat oro har.

Informazio horrek izaera orokorra du, ez ditu abokatutza instituzionala osatzen ez duten pertsonen eta erakundeen buruzko egoera espezifikoak jasotzen. Era berean, informazio hori ez da aholkularitza profesional edo juridiko moduan interpretatu behar.

ICAGl eskuragarri dituen baliabide guztiak baliatzen ditu informazioa eguneratuta izateko eta gerta daitezkeen okerrak zuzentzeko, jasotzen duen informazioa baliagarria izan dadin interesdunentzat. Alor pribatua jasotako edukia onustez landutakoak dira, une oro, erabiltzaileei informazio baliagarria emateko eta zerbitzuak eskaintzeko helburuarekin. Erabiltzaileak jakin behar du ICAGl ez duela baliabide materialik argitaratutako informazio guztiaren –ziurtagiritako iturrietatik datorren informazioa– zehaztasuna alderatzeko eta, beraz, ICAGl ez duela inolako erantzukizunik hartzen bere gain aipatutako informazioaren zuzentasunari dagokionez eta ez duela horren zehaztasuna, ezta eguneratuta egotea ere bermatzen, eta aldez aurretik ohartarazi gabe aldatu ahal izango duela. Informazio horrek izan ditzakeen akats tipografiko, material, formal edo zenbakizkoen erantzukizunik ere ez du hartuko.

Legediaren eta gainerako arauen kasuan, bai eta ebazpen edo epaien kasuan, dagokien aldizkarietan argitaratutako testu ofiziala izango da nagusitako dena alor pribatua txertatutako bertsio elektronikoarekin desadostasunak sortuz gero.

Erabiltzaileak ICAGl argitaratutako informazio guztiaren zehaztasuna alderatu beharko du, bere baliabideak erabilia, informazio horretan oinarritutako edozein erabaki hartu aurretik. ICAGl ez du bere webgunean eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta hartutako erabakietatik sortutako galeren –zuzenak zein zeharkakoak– erantzukizuna hartuko eta bere webgunean edo alor pribatua argitaratutako edozein informazio alde aurretik ohartarazi gabe aldatzeko edo ezabatzeko eskubidea izango du.

3.1.2. Zerbitzuen eskuragarritasuna.

ICAGIk inolaz ere kontrolatzen ez dituen faktoreen mende egon daiteke zerbitzuen eskuragarritasuna, hala nola sarea erortzea, eraso informatikoak, hondamendi naturalak edo ezinbesteko kasuak, beraz, ICAGIk ez du hartuko bere gain berari ez dagokion edo berari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik sortutako sistema elektroniko edo informatikoetako funtzionamendu operatiboan izandako interferentzia, omisio, eten, birus informatiko, telefono-matxura edo deskonexioetatik sortu daitezkeen kalteen erantzukizuna.

3.1.3. Zerbitzu-hitzarmenak hirugarrengeokin.

Elkargokideek jurisprudentzia-kontsulta eta liburutegi zerbitzuak topatuko dituzte ICAGIko alor pribatuan. Zerbitzu horiek eskaini ahal izateko, ICAGIk lankidetzat-hitzarmenak sinatu ditu eduki juridikoko izen handiko editore eta sortzaileekin, elkargokideek kalitatezko informazio baliagarria eskuratu ahal izan dezaten beren lanbidearen jardueran. Zerbitzuen kalitatea eta eskuragarritasuna hornitzaileen mende dagoela onartu behar du erabiltzaileak eta, beraz, ICAGI ez da hornitzaile horiek kudeatutako edukien erantzule izango, ezta horien eskuragarritasunaren erantzule ere. Hala eta guztiz ere, elkargokideek planteatutako kexa eta iradokizun guztiak erantzuniko ditu ICAGIk zerbitzuen kalitatea hobetze aldera. Zerbitzuen jabeek edukien gain jarritako erabilera-lizentziak eta jabetza intelektualeko arauak errespetatu beharko dituzte elkargokideek.

3.2. Posta elektroniko korporatiboaren zerbitzua.

ICAGIk hitzarmen bat sinatu du Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiarekin (aurrerantzean CGAE, gaztelaniazko sigla) elkargokideei posta elektroniko korporatiboaren zerbitzua eskaintzeko. Zerbitzuaren kudeaketa tekniko guztia CGAEk eta haren hornitzaileek egiten dute zuzenean, horregatik CGAEk zerbitzu horri aplikatutako erabilera-baldintzak onartu behar ditu erabiltzaileak. Baldintza horiek eskuragarri daude esteka honetan: <https://www.abogacia.es/wp-content/uploads/2021/06/20210514-Condicion-de-uso-CORREO-ABOGACIA.pdf>

Era berean, elkargokideak ondorengo estekan topatuko ditu kontua instalatzeko, mantentzeko eta kudeatzeko jarraibide tekniko guztiak, baita erabilera-baldintzak, kontserbazio-epaiek eta gainerako betebeharrak eta erantzukizunak ere: <https://www.abogacia.es/servicios/colegio/correo-electronico/>

ICAGIk aipatutako hitzarmena sinatu du interesgarria jotzen duelako elkargokideentzat, beren borondatez aktibatu ahal izango baitute posta elektroniko korporatiboko beren kontua. Dena den, erabiltzaileak aitortzen du badakiela eta baldintzarik gabe onartzen duela ICAGIk ez duela bere posta elektronikorako inolako sarbide tekniko edo administratiborik eta, beraz, ez duela inolako erantzukizunik funtzionamendu egokiari, eskuragarritasunari eta segurtasunari dagokionez. ICAGIk ez du posta elektroniko korporatiboaren zerbitzura egiaztatze eta betetze kontrol iraunkorrak aplikatzeko baliabide material eta teknologikorik, ez eta aplikagarriak diren neurri tekniko edo mantentze-lanetako neurrien gaineko erabaki-gaitasunik ere. Hala eta guztiz ere, elkargokideek kexa eta iradokizun guztiak erantzuniko ditu ICAGIk zerbitzuak hobetzeko eta erreklamazioak aurkezteko.

Zerbitzuak erabiltzeko aurrez aipatutako baldintzak jakinik eta horiekin bat eginik, agiri hau sinatzen dut:

.....(e)n, 202.....koren.....(e)an

Elkargokidea

.....jauna/andrea

Zk.:

Sinadura manual:

edo Sinadura digitala

Mesedez, zure elkargoko idazkaritzan entregatu kopia hau edo secretaria@icagi.net helbidera igorri NANaren kopiaekin.